# MARTXOAK 8

*Asteazkenean, martxoak 8, Ikastolako Berdintasun Topaguneak hainbat ekintza antolatu ditu Emakumeen egunaren harira.*

*Ekimena etapa guztietara zabalduko dugu, bertoko ikasleen ezaugarrietara egokituta. Egun horretan, ETORRI MOREZ JANTZITA!*

***Haur Hezkuntza**ko ikasleek prestatu duten koreografia dantzatuko dute 11etan goiko Ikastolan.*

***Lehen Hezkuntza**n ikasleentzat garrantzitsuak diren emakumeen banderinak, betaurreko moreak eta argazki kolektiborako pankarta prestatuko dituzte.*

***Bigarren Hezkuntza**n maila guztietan ikasleek zein irakasleek antolatutako ekimen ezberdinak garatu dira.*

## M8 ARGAZKIA

*Eguneko ekintza nagusia etapa guztietako ikasle, langile eta familien parte hartzea sustatzeko asmoz, **14:45ean** izango da. Martxoak 8 data irudikatuz mosaikoa osatuko dugu ikastolako sarreran.*

## HEZKIDETZA PLANA

*Laudio Ikastola, berdintasun plana egin ostean, HEZKIDETZA PLANAren diseinuan murgildu da.*

*Lan hau burutzeko ikastola osatzen dugun guztion ekarpena ezinbestekoa da. Horretarako eskuartean duzun galdetegi hau, BERDINTASUN TOPAGUNEAk sortu duena, martxoaren 8a baino lehen betetzea eskatu nahi dizuegu, ahal dela familian, zergatik ez?*

*Galdetegi honetan eta beste batzuetan jasotakoa hezkidetza planaren abiapuntua izango da, diagnosia.*

inkesta erantzun

## ETA.... ZER DA HEZKIDETZA?

*«Neska-mutilak genero femeninoa edo maskulinoa alde batera utzita hezten dituena, hots, sexu-desberdintasunetik abiatuta hezten dituena, beren banakotasunaren garapena bultzatuta, baina gizarte sexista batetik sexu batekoa edo bestekoa izateagatik betetzeko eskatzen zaizkien rolak kontuan izan gabe» (Mª José Urruzola).*



*«Etiketarik gabeko mundua eraikitzea, non emakumeak eta gizonak, pertsona guztiak, maila berean egongo baitira, beren eskubide eta askatasunekin» (Amelia Barquin)*

*«Pertsonak bere banakotasun, berezitasunaren arabera, generotik at egiten den hezkuntza da, hau da, irizpide sexistei jarraiki gizon eta emakumeei egokitutako rol, balio eta jarrerak kontuan hartu gabe heztea da. Gakoa da, neska eta mutilentzako, edozeinentzako baliagarria izango den pertsona eredua bultzatzea, estereotipo izan den eredu femeninoa eta maskulinoa saihestuz, estereotipo tradizionalak eta zaharkituak alde batera utziz» (EAEko Hezkuntza sistemarako II.ko Hezkidetza plana).*

## BERDINTASUN TOPAGUNEA

*Ikastolako Berdintasun topagunearen hurrengo bilera martxoaren 14an, asteartea, 16:30ean idazkaritzako bilera gelan izango da.*

*Betiko moduan, bilera irekia da eta Ikastolako kide guztiok berton parte hartzeko aukera dugu.*

# MARTXOAK 8

El miércoles, 8 de marzo, el Foro para la Igualdad de la Ikastola ha organizado varias actividades para celebrar el día de las Mujeres.

La iniciativa abarcará todas las etapa y estará adapatada a las diferentes edades. Animamos a acudir ese día VISTIENDO DE MORADO.

El **alumnado de Educación Infantil** preparará una coreografía que bailará a las 11 a la entrada del edifcio principal.

En **Educación Primaria** prepararán banderines con mujeres importantes para el alumnado, gafas moradas y una pancarta para la foto colectiva.

En **Secundaria** se llevarán a cabo varias actividades del alumnado y profesorado en todos los cursos.

## FOTO DEL 8 DE MARZO

El acto central del día tendrá lugar a las 14:45 y propone la participación del alumnado, familias y trabajadoras y trabajadores de todas las etapas: realizaremos un mosaico a la entrada de la Ikastola representando la fecha del 8 de marzo.

## PLAN DE COEDUCACIÓN

Tras redactar el plan de igualdad, Laudio Ikastola afronta ahora el diseño de un PLAN DE COEDUCACIÓN.

Para la consecución del plan es necesaria la participación de todas las personas. Para ello os pedimos que respondáis el siguiente formulario diseñado por el FORO

**responder encuesta**

PARA LA IGUALDAD, y ¿por qué no? que lo hagáis en familia.

La información recogida en este y otros formularios será el punto de partida para la redacción del plan de coeducación.



## PERO... ¿QUÉ ES LA COEDUCACIÓN?

"educar a los niños y niñas independientemente del género femenino o masculino, favoreciendo el desarrollo de su individualidad, pero sin tener en cuenta los roles que se les exige desempeñar desde una sociedad sexista por ser de un sexo u otro" (Mª José Urruzola).

"Construir un mundo sin etiquetas en el que mujeres y hombres, TODAS LAS PERSONAS, estén al mismo nivel, con sus derechos y libertades" (Amelia Barquin)

"Es la educación que se realiza al margen del género y en función de la individualidad y singularidad de la persona, es decir, educar sin tener en cuenta los roles, valores y actitudes asignados a hombres y mujeres con criterios sexistas. La clave es impulsar un modelo de persona que sirva a chicas y chicos, a cualquiera, evitando estereotipos tradicionales y obsoletos asigandos al modelo femenino y masculino" (II Plan de coeducación para el sistema educativo vasco)

## FORO PARA LA IGUALDAD

La próxima reunión del Foro para la Igualdad de la Ikatola será el 14 de marzo, martes, a las 16:30, en la sala de reuniones junto a secretaría.

Como siempre, es una reunión abierta en la que podemos participar todas las personas de la comunidad educativa.